

# Bero-beroan

## ARGIA eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena



Andres Urrutia euskaltzainburua eta Berdaitz Goia ARGIA argitaratzen duen Komunikazio Biziagoa S.A.L. enpresaren kudeatzailea.

DIA 90. urteurrena ospatzen ari den honetan egin du hitzarmena ARGIAk Euskaltzaindiarekin. ARGIAk urte bukaera bitartean Euskaltzaindiak egingo dituen ekitaldien berri emango du. Bestalde, ARGIA aldizkariak 2000. urtetik hona ekoiztu dituen testuak Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko ditu, akademiak Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa garatu dezan. Bataren zein bestearen artxibategi eta bibliotekak erabiltzeko akordioa ere sinatu dute.

## Euskara ez da ardatz izango

BAGENEKIEEN BAZETORRELA baina orain egin da ofizial Isabel Celaá buru duen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hartutako erabakia: Haur Hezkuntzan euskara ez da izango hizkuntza nagusia, aurreko Jaurlaritzak onartutako curriculumak zehazten zuenaren kontra. Haur Hezkuntzan bezala, hezkuntza sistemako gainerako etapetan ere gauza bera egin nahi du sailburuak. Euskara ardatz ez zuten ikasleek hizkuntza horretan lortutako mailaren berri izan genuen bere garaian. Celaá azalduko ahal digu oraingo ikasleek nola lortuko duten legeak ezartzen duen euskara maila.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

## TALAIAN

### Zerga politika aldatu

Finantza krisia eta ondorengo krisi ekonomiko eta soziolaborala direla eta Administrazioak egoera arintzeko bide bila dabilta. Hego Euskal Herriko Administrazioak hasi dira bestelako irtenbideak mahai gainean jartzen. Proposamen guztiek aurreikusi dute aurrekontuak murriztea, eta baita zorpetzea ere, zerga bilketa pixka bat jaitsi baita. Aurrekontuak mugatzeak, azkenean, beti dakartza murrizketa sozialak. Ez Ibarretxeren Gobernuak, ez Lópezenak, ez Sanzenak, eta ezta Zapateroren Gobernuak ere ez du aurreikusi zerga politika sustraitik aldatzea. Zerga politika behar da diru kutxa publikoa gehien hornitzen duen gizartearen gehien-goarentzat, eta ez aberatsak eta enpresariak lehenesteko. Presio fiskala Europako batez bestekoaren antzekoa balitz Euskal Autonomia Erkidegoan 4.000 milioi euro gehiago bilduko liriteke eta Nafarroan 1.300 milioi gehiago. Zapaterok 4.500 milioi euro murriztu ditu kotizazio sozial enpresarialetan.

Horregatik, ELA eta LABek, eta Elkartzen-ek, Hego Euskal Herriko aurrekontuak ez dituzte onartu. ELAk informazio zehatzaren bidez frogatu du euskaldun aberats eta enpresariak Ogasunean beren zerga paradisuak dutela. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, urtean batez beste, 20.000 euroko errenta aitortzen du norbanakoak eta enpresariak eta sektore profesionaleko langileek 12.200 euro. Sindikatu abertzaleek eta gizarte mugimenduek iruzur fiskal horren kontra borrokatzeaz gain, atzera bota nahi dituzte Sozietateen Errenten gaineko Zergaren, PFEZaren eta Ondarearen gaineko Zergaren erreformak. Ogasunek askoz gehiago bilduko lukete horrela. Aurrekontuak murriztu beharrik eta zorretan ibili beharrik ez legoke, azken finean horiek ere langileen bizkar izaten dira. Horretarako zerga politika errotik aldatu behar da eta albo batera utzi elkarrizketa sozialerako balizko mahaien marketina.

Juan Mari Arregi

## Sanz iragazki lanetan

EUSKO JAURLARITZAK ezingo die zuzenean diruz lagundu Nafarroako ikastolei eta ezta euskalgintzako eragileei ere. Bi lehendakariak, Sanzek eta Lópezek, elkarren arteko harremani buruzko protokoloa sinatua dute eta ondorioz Jaurlaritzak emango dituen diru-laguntzak Nafarroako Gobernuaren eskutatik pasako dira. Nafarroa Baik adierazi duenez, Sanzek ez du eskumenik horrelako erabakirik hartzeko.

## BAHEA

Edurne Ramonek *Diario de Noticias de Alava*n esanak: “Arabar

Errioxan, erdal hitzunen ingurutako zonaldean, gezurra dirudi euskarak bizirik jarraitzea, geroz eta indartsuago, gainera. Euskararen erdigunea ikastolan dago, nahiz eta gero kalean entzutea asko kostatzen den, inguruko herritarren %90 erdaldunak direlako.

Dendariak erdaldunak dira, jate-txeak –bat edo bi salbu– ere bai, eskolaz kanpoko jarduerak gaztelaniaz egiten dira... gogor borrokatu behar da”.

## Bi mundu abertzaleen arteko zubi lanaz

**EAJ-K SOBERANISMOARI** ez diola uko egin baietsi zuen EBBko lehendakari Iñigo Urkulluk alderdiaren 114. urteurrenean Bilbon. "Baina norbaitek pentsatzen badu baietz, pentsa dezala geldiuene hori tekniko dela", gaineratu zuen. Abertzaletasunaren egungo egoera jorrazten duen LARRUNeko 113. zenbakian, Xabier Arzalluzek honakoa zioen: "EAJko Batzar Nazionalari galdera hau egingo nioke: independentistak zarete, bai ala ez?". Joan den asteko ARGIAN egindako elkarrizketan, Iñigo Urkulluk bere burua abertzaletzat eta, beraz, independentistatzat jotzen zuen. Ez zuela alderdiko kideekin publikoki eztabaidatzen gaineratu zuen, baina zeharka edo zuzenean Arzalluzi erantzuten ari zen.

EAJk noraeza handia bizi du Jaurilaritza eta Ibarretxe lehendakaria galdu ondoren, eta diputazioak eta krisiari aurre egiteko proposamena erabiliz, ekimenari eutsi eta PSOE-PP tandemean kontraesanak sortzen saiatzen ari da. Ez dirudi fruiturik emango duenik, baina burua agertzea ahalbideratzen dio.

Garrantzitsuena, ordea, norabidea da eta aldizkari honetan Urkulluk

**Abertzaleen arteko zubi lan barik, nekez hel gaitzke gatazka bortitzaren irteera duin batera; nekez abertzaletasunak bat egiten duen gutxieneko horretara**

EAJk "Estatutu Berriaren garapena aldarrikatzen jarraitzen duela" esan berri badu ere, ez da hori Sabin Etxeatik bultzatzen dena, ezta gizartean jeltzaletz perzibitzen dena. Abertzaletasunaren eremuan eztabaida eta hausnarketa zorrotza dator epe laburrean eta, alde horretatik, EAJz zabaltzen diren ikuspegieta Urkullurena baino argigarriagoa iruditzen zait Juanjo Alvarez analista eta Bergarako UNEDeko zuzendariak *El Pais*-en esana: "Abertzaletasun instituzionalak jadanik erre ditu zenbait etapa, eta Gobernuak [Lopez] aliatu bat aurki dezake hor. Eta ez soilik sozialistak boterera iritsi direlako, baizik eta [EAJ-k] ulertu duelako abertzale mundu erradikalarekiko balizko enpatiak ez duela inongo zentzurik. Miguel Angel Blancorena oroitzen

dugun egun hauetan *bigarren Lizarrari* buruz ez hitz egitea ez da itxura politiko zehatza gordetzeko, ezta elektoralista ere. Atzera bueltarik ez duen EAJren jarrera bati erantzuten dio, EAJk ez baitu, inongo kasutan, atzera egiterik nahi".

**UDAZKENA** dago aurrera begira, polo soberanistaren eraketarako iragarritako data ospetsua. Baina denak adierazten du luzeagorako joko duela eraketa horrek, noizbait gauzatzen bada ere. Oso modu lausoan baina ETaren ondorengo garaietarako badirudi bi molde egituratzen ari direla abertzaletasunean, EAJren inguruan bata eta ezker abertzale zabal baten inguruan bestea.

Hausnarketa sakona behar da logikoa den abertzaletasunaren egitura-keta horri buruz; hausnarketa behar den moduan bi mundu horien artean behar den zubi lanaz. Zubi lan hori barik, nekez hel gaitzke gatazka bortitzaren irteera duin batera; nekez hel daitezke bi mundu horiek abertzaletasunak bat egiten duen gutxieneko horretara. Eta gutxieneko horretatik abiatu barik ez dago erabaki eta eraiki ahal izango duen euskal subjektu sendorik eratzerik.

**ZIO** ● ZIENTZIA ● IRAKURLE ● ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundia-aren laguntzari esker urterik urte osotuz doa ZIO bitartean. Zientziara hurbiltzeko liburu enkargeri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure artean euskaraz

BFA DFB

Bilaka Foru Aldeko Elkartea